

hondo-hondotik

Josean Belzunce

(Mendi eta Ingurugiro Zerbitzuetako teknikaria)

Gipuzkoa Parke Natural eta Nazionalen Europako Egunean

Gaur Parke Natural eta Nazionalen Europako Eguna da. Erakundeek ospakizun garrantzitsurik prestatu ez dutenez, gaurkoa gogoeta egiteko eguna izango dugu, euskal erakunde publikoek —ingurumena eta bioaniztasuna zaintzeko eskumenak dituztenak— arlo horretan egiten duten gestioari buruz.

Europar lehenengo parke naturalak Suedian izendatu zituzten, 1909an. Bestalde, Nafarroako Gobernua aitzindari dugu Euskal Herrian, lehen naturgune babestuak izendatu baitzituen, 1984an Bertizko Parke Naturala kasu. EAEn beranduago ekin zioten habitatak babesteko politikak egiteari; 1989an Urdaibai biosferaren erreserba izendatu zuten; iparraldean, berriz, Abadiako itsasbazterreko babesgunea dugu Hendaian.

Alta, gauza bat natura babestu ahal izateko figura juridikoak izatea da —parke naturalak, erreserba integralak, biotopo babestuak, babes bereziko eremuak (ZEPA), itsasbazterreko babesguneak eta abar—, eta beste bat naturgune babestu horietan natura zaintzeko egiten den lana. Hala, Euskal Herrian gauza gutxi egin da naturguneak behar bezala kudeatzeko. Nafarroan Bioaniztasuna Zaintzeko Zerbitzua dugu, eta EAEko diputazioetan Mendia eta Natura Babesteko Zuzendaritza Nagusiak ditugu. Salbuespen ohoragarri batzuk kenduta, eta urte askotan bildutako esperientzia sakon aztertu ondoren, argi eta garbi ikusi dugu administrazio-ko sail horiek, goi erakundeetatik (Gobernua, Unesco, Brusela) naturguneak babesteko eskumenak hartu badituzte ere, ez dutela proiektu zehatzak garatzeko borondaterik agertu.

Parke naturalek gure naturguneetako eredu izan beharko lukete. Euskal gizarteak eskari berriak ditu; herritarrek paisaia aldetik balio handikoak diren naturguneak nahi dituzte, habitata, flora eta fauna zaintzeko eremu zabalak, paseatzeko eta aisialdirako tokiak. Alabaina, administrazio publikoek egiten hainbat ekimen kaltegarriak dira; interes publikoarentzat zalantzaragarrak diren hainbat proiektu egin dituzte, interes pribatuak lotutakoak dira, eta aurrekari txarrak

izan daitezke etorkizunerako: esaterako, Itoizko urtegiak kalte egiten dien ZEPA eta erreserba naturalen kasua; Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Kooperazio Kontseiluak salaketa babes bereziko zoruan hirigintza proiektuak egin dituztelako; Lareoko urtegian, Aralarko Parke Natualean, Erabilera eta Gestiorako Plan Nagusia bizilekuak egiteko, eta urteko planetan egindako politika sektorial jakin batzuk.

Gipuzkoari dagokionez, hemen ere badi-tugu parke naturalak eta biotopo babestuak; hala ere, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen sailak natura eta parke naturalak babesteko eskainitako aurrekontua oso eskasa da. Orain arte egin duten politika sektore pribatuarena bezalakoa izan da, eta soilik zura ustiatzera, larreak era intentsiboan ustiatzera eta arrantza eta ehiza antolatzen mugatu dira. Bisitariak Gipuzkoako parke natural batera joaten direnean Europako beste edozein tokitan egiten ez diren gauzak ikusten dituzte: motoak eta noranahiko ibilgailuak nonahi, matarrasak egur ustiatzeetan eta aldapa handiko guneetan, zura ateratzeko bide luzeak eta urbanizazioak paisaia naturala. Laburbilduz, babestutako guneak baliabide naturalak ateratzeko erabili dituzte, eta ez dute ezer egin desagertzeko zorian dauden fauna eta flora espezieak eta habitata naturalak —egun oso eskasak— lehenegoratzeko (basoa, ibai ertzak, padurak), ezta paisaia naturalak kudeatzeko ere. Ez dugu ahaztu behar horregatik izendatu dituztela parke natural.

Ez dago naturguneak babesteko politika publikorik, eta horrek legedian hutsune handi bat dagoela adierazten du NGPak (naturgune babestuak) gestionatzeko eta antolatze baliabideak ezartzerakoan: ingurumen parametroen segimendurako planak (babesteko, erabilera eta ikerketarako), parametro sozioekonomikoen kontrola, erabilera eta gestiorako planak gauzatzea ebaluatzea. Egoera horren adibide nabarmena Aia-ko Harria parke naturala dugu, Gipuzkoako ipar-ekialdean, Bidasoa eta Urumea ibaien arteko mendikatean. Duela bost urte parke natural izendatu zuten, eta bost urteotan

ahaztuta eduki dute gestioaren ardura zutenek. Orain herri agintariek araudia ezartzea lortu dute foru organo gestorea presionatu ostean, eta parke naturaleko patronatua sortu dute, gestioa kontrolatzeko eta antolatze-ko. Parke naturalekin zerikusia duten bost udaletako ingurumen agintariek batera egindako azterketaren ondorioz adostasuna lortu dute. Udalerrri horiek, basoaren jabe gisa, Parke Naturaleko lurraren %85aren ardura dunda dira. Akordio horren oinarritzako puntuaren arabera, Parke Naturala erabili eta gestionatzeko planean azaltzen dutenez, herri lurretako basoak baso natural bihurtu nahi dituzte lurraren jabeek. Gaur egun, udalen interesa —jardun ekonomiko nagusia industrian eta zerbitzuetan egiten dute— ez da egurra ekoiztea, funtzio soziala eta ingurumenaren aldekoa egitea baizik: aniztasun biologikoa eraginez, herritarrentzat aisialdirako guneak prestatuz, naturaren turismotik dirua jasoz, habitat naturalak eta kalitate oneko paisaiak zainduz. Azken batean, naturguneak berriro indartzea da helburua, eskualde bakoitzean auzoen zaharberritze urbanistikoarekin batera.

Ekimen hori, Espainiako Estatuan NGPen esperientziari dagokionez, oso garrantzitsua da, Parke Natural izendatzearen «ondorioak» jaso dituztenak baitira naturgunea babesteko politika dinamizatuko dutenak, eta ez, eskumena dela-eta dagokiona, Nekazaritza eta Ingurumenerako Foru Sailak.

Guk, Gipuzkoan natura babesteko politikaren norabidea alda dezatela eskatu nahi dugu; horretarako, diru laguntza gehiago eman beharra dago, aurrekontu duinak zehaztu bioaniztasuna zaintzeko, eta giza baliabideak eta teknikoak areagotu egin behar dira (langile teknikoak eta administrariak, hektareak babesteko zaintza ratioak, eta abar).

Carlos Aseginolaza, Iñaki Azkarate, Ion Castañares, Olatz Urrutibaskoa eta Mikel Zabala Irun, Oiartzun, Errenteria, Donostia eta Hernaniko Udaletako mendi eta ingurumen zerbitzuetako teknikariek ere sinatu dute idatzia.

Erredakzioan itzulia

hirusta

Itziar Madina



Ezantza edo gasolina tokian

Primaderako gau fresko euritsua etorri zen, Euskal Herriko kostaldean segitzen duen A-8 autobideko gasolina edo ezantza hartzeko toki batera. Neoieng argien izpian, zalutasun handiko bidea minutu laburrentzat utzia zuten auto desberdinak baziren, ontzia erregaiz betetzen. Gizonak, emazteak, Euskal Herrikoak batzuk, kanpokoak beste batzuk; Portugal, Frantzia... Nire autoko gidaria lan horietan zebilen artean, doi bat urrunago zen jendea begira jarri nintzen. Kamioilariak, bakoitza bere kabinan; afaria prestatzen batzuk, berriz abiatzekotan besteak. Eta eskuineko aldetik, komunitatik zetozen bi gizon. Berrogeita hamar urte ingurukoak, argalak, beltzaranak, lanak eta biziak akitzen hasiak, magrebtarrek janzten ohi duten, zenbait urte dituen jaka amerikano laukiduna soinean. Magrebtarrek ziren, Belgikarako bidean dudarik gabe, hango matrikulako kamioneta batera hurbildu baitziren. Haiek bezala beribilak ere nekatua iduri zuten. Batek daki zenbat aldiz eginga zukeen bidea, Maroko eta Belgika hotzaren artean. Kamionetaren aurreko partean bi gizon zeuden, gidaria eta ondokoa. Gibelean, beste bat, jarleku batean, tokia utziz bere atzealdean, etzanik zeuden bi emazterik. Kanpotik etorri bi gizonetatik bat, aurrekoen ondora upatzekoa zen. Baina hori aitzin, kamionetaren atzeko partean denak ongi zirela segurtatu zuten. Gero, urte askotan errepikatu gestuaren usaiarekin, ezkerretik eskuinera lerrarazi zuten atea, ongi hetsia zela ikusteko kolpea eman berriz, eta kabinara igo zen. Zazpi lagun ziren autoan, gau osoa bidean pasatzeko prest, emazteak baizik ez, estalgiek berotasunean... Imigrantearen bizi gordina: herria utzi eta hobeki bizitzeko, etengabe zailtasun materialen aurka borrokatzeko.

hemeroteka

■ ARGIA

Literatura bultzatzeko fundazioa

(Koldo Biguri EIZIEko lehendakaria)

«Herriotan aspalditik daukate idazle eta literaturgileentzako halako konpentsazio-sistema bat, liburutegi publikoetako mailaguatik; izan ere, mailegu publiko honen oso kultur betekizun garrantzitsua

dauka gizartean, baina bestalde kalte nabaria egiten die sortzaile eta itzultzaileei, dexente gutxitzen baitituzte beraien liburu salmentak eta, ondorioz, liburuak idazten eta itzultzen dituztenen eskubide eta irabaziak. Hala, Euskal Itzultzaileen Elkarte (EIZIE) harremanetan hasi da euskal erakunde publiko eta alderdi politikoetako ordezkari zenbaitekin Literatura Bultzatzeko Euskal Fundazioa sortzeko».

«Fundazio horrek aitortu egin beharko luke literatur sorkuntzak eta itzulpen-

tzak balio estrategikoa duela gure kulturarentzat, eta horrela balio beharko luke literatura sortzaile eta itzultzaileek ahalik eta modu profesionalen egin ahal izan dezaten beren lana: horretarako, laguntza, beka, aseguru eta osagarritzako pentsio sistema bat eratu beharko litzateke, literaturgileek merezi adinako irabazi duinak izan ditzaten, merkatuaren txikitutasunagatik ezinezkoa izaten baita horrelakorik lortzea, batez ere euskal literatur merkatuaren kasuan».